

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
5 positibo berri	1.615 hildako EAEn	0 positibo berri	528 hildako
2.320 positibo guztira*	6 UCIn, EAEn	5.464 positibo guztira	1 UCIn
*Hernanin 66, Astigarragan 21		Sendatuak: EAE 18.141, Nafar. 9.557	

Lau bertsoariaren errimek emango diete hasiera gaur arratsaldean, Ereñotzuko aurreneko Uda Kulturalari

Arratsaldeko 19:30etan hasita, bertso jaialdia eskainiko dute Eli Pagolak, Maialen Lujanbiok, Amets Arzallusek eta Unai Iturriagak. Bertan egoteko, izena eman behar da aldeztu aurretik, 688 780 356 telefonora deituta edo idatzita.

EREÑOTZU UDA KULTURALA

Urte berezia ari da izaten aurtengoa, Koronabirusaren pandemiaren eraginez. Festarik ez da izan orain arte, ezagutzen ditugun moduan; eta datozen asteotakoak ere bertan behera geratu dira, Urumea bailaran. Baina horren trukean, tarteka ekintza kulturalak antolatzen ari dira, bailarako herrietan.

Hala egin dute Ereñotzuan ere. San Antonio jairik ez, baina aurreratu zuen Olak Auzo

Elkartek, izango zela zerekin gozatu udaran. Eta aurreneko, Uda Kulturala antolatu dute, sei emanaldirekin.

Gaur bertan hasiko da, bertso jaialdi batekin. Arratsaldeko 19:30etan jarri dute hitzordua, Ereñotzuko plazan; eta taula gainera igoko dira lau bertsolari: Eli Pagola ereñotzuarra, Maialen Lujanbio hernaniarra, Amets Arzallus eta Unai Iturriaga.

Bertso saioaz gozatzeko, hori bai, beharrezkoa da aldeztu aurretik izena ematea, aforoa muga-

tua izango baita. Horretarako, 688 780 356 telefonora deitzea, edo WhatsAppetik idaztea telefono horretara bertara.

En Tol Sarmientoren kontzertua bihar, sala digitalean

Bihar bertan izango da bigarren emanaldia ere: En Tol Sarmiento taldearen kontzertua izango da, Naizek antolatutakoa; baina modu digitalean ikusteko aukera izango dute auzotarrek. Pantaila bat jarriko dute plazan, eta bertan ikusi ahal izango dute kontzertua, 22:00etan hasita.

Horretarako ere, izena eman behar da aldeztu aurretik telefonoz deituta edo WhatsApppe, zenbaki berean: 688 780 356.

Hurrengoa zita, uztailaren 11n, zinea aire librean: Small foot jarriko dute, 22:00etan. **K**



Maialen Lujanbio kantuan, iazko San Antonio jaietako bertso saioan.

Jardunaldi erabakigarria jokatu da larunbatean, eta doako gonbidapenak eskuragarri daude Kronikan

Ligaxkaren azkeneko jardunaldia jokatu dute, Galarretaren 50garren urteurreneko txapelketan, arratsaldeko 16:00etan hasita. Kronikak 20 sarrera banatu ditu, doan, irakurleen artean. Horretarako, deitu.

HERNANI-GOIZUETA ERREMONTA

Larunbat honetan jokatu da, 16:00etan hasita Galarretan, ligaxkaren jardunaldi erabakigarria, frontoiaren 50garren urteurrena ospatzeko torneoan.

Ligaxkako hirugarren eta azkeneko partidua jokatu dute lau bikoteek. Batetik, Endika Barrenetxea hernaniarrak eta Goikoetxea V, aurrez aurre izango dituzte Juanenea eta Endika liderrak. Eta bestetik, Aritz Zubiri goizuetarra eta Urriza,

Ansa II eta Larrañagaren kontra ariko dira.

Ligaxkako aurreneko hiru bikoteek egingo dute aurrera, eta Goikoetxea V eta Barrenetxea IVk daukate zailena. Puntu bakarra lortu dute orain arte, eta irabazi eta lau puntuak eskuratu bakarrik ez, beste partiduko emaitzaren zain ere egon beharko dute. Izan ere, lau punturekin daude Urriza eta Zubiri, eta bost punturekin Ansa II eta Larrañaga. Irabazleak aurrera egingo du, eta galtzaileak, lor-



Zubiri eta Barrenetxea, aurreko larunbatean. Argazkia: Maialen Andres

tutako tantoei erreparatu die: 32-34 tanto lortuta, bi puntu jasoko ditu; 29-31 tanto eginda, puntu bat; eta 19 tanto baino gutxiagorekin, puntu bat kenduko diote. Juanenea eta Endika, al-

diz, dagoeneko sailkatuta daude, zortzi punturekin; baina aurreneko postua ziurtatu nahiko dute, zuzenean finalera pasea lortzeko; bigarren eta hirugarren sailkatuek, semifinala jo-

katuko dute, beraien artean.

Ia dena dago jokoan oraindik, beraz, etziko partiduetan.

Gonbidapenak doan, Kronikak Jaialdirako sarrerak, prezio bezian eskuratu ahal izango dituzte hernaniarrek, ohi bezala, Galarretan: 5 euro izango dira, haientzat. Eta Kronikak, doako gonbidapenak ere emango ditu, Oriamendirekin daukan lankidetzaz hitzarmenagatik.

Zehazki, 20 sarrera banatu ditu Kronikak, larunbat honetako jaialdirako, irakurleen artean. Horretarako, nahikoa da 943 33 08 99 telefonora deitzea, WhatsApppe idaztea 688 660 714 zenbakira, edo emaila idaztea kronika@kronika.eus helbidera. Aukera paregabea, erremontea ezagutu nahi dutenentzat. **K**

AKELENEA
Erretzia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo eta Ana

Entsalada
Kostila patatekin
Postrea
Sagardo botila

22€
Larunbatean
enkarguz

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

BIKAIN
OKINDEGI TR GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezlago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89

20120 Hernani

GAUR Giro ilunagoa eta frexkoagoa izango dugu gaur. Fronte hotz bat sartuko da, zerua estalita egongo da, eta euria egingo du, berezikiko kostaldean. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, eta enbarazu egingo du tarteka. **Min.15° / Max.18°**

BIHAR Laino askorekin hasiko dugu eguna, bereziki kostaldean, eta baliteke euri pixka bat egitea. Hortik aurrera, ordea, argituz joango da, eta ostarteak zabalduko dira arratsaldean. Ipar-ekialdeko haizea nagusituko da orduan. **Min.13° / Max.20°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** Castilla Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** Gauez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Ibai bazterrak garbi mantentzea eskatuz bertatik bertara, alkateak

Bisitariengana hurbildu ziren Arano eta Goizuetako alkateak, joan den igandean, arduraz jokatzera eskatzen.

ARANO-GOIZUETA NATURA

Azken urteetako arazo potoloetako bat da, Urumea bailaran, bisitarien ibaiaren bazterrean uzten duten zaborra. Behin eta berriro eskatu dute bailarako udal ezberdinetako ordezkariak, ibai bazterrak garbi mantentzea; baina arazoak bere horretan jarraitu egin du, eta areagotu ere egin da, zenbaitetan.

Horregatik, uda hasiera honetan ere, «arduraz jokatzeko» mezua helarazi nahi izan dute berriro, eta bertatik bertara egin dute hori, Aranoko eta Goizuetako alkateak; Joxan Ruizek eta Unai Mirandak, hain justu.

Joan den igandean, ibai bazterrean hurbildu ziren biak, bisi-



Joxan Ruiz, Aranoko alkatea, bisitari batzuei azalpenak ematen.

tariengana, zaborren bilketari buruzko informazioa banatu eta arduraz jokatzera eskatzen. Eta bide batez, bertan zeuden zaborrak bildu zituzten. «Espero dugu honek eragina izatea, eta zaborren inguruko kudeaketa on bat eginez, denok zentzuz jokatzera», azaldu dute.

Bisitarietako emandako informazio praktikoan, azaldu zieten Mendialdea Mankomunitateak biltzen dituela Aranoko eta Goi-

zuetako hondakinak; eta ibai bazterretan zaborra botatzeko edukiontzirik ez dagoenez, hondakinak ezin direla bertan utzi. Gainera, legearen arabera, falta larria da hondakinak ez dagoen tokian uztea, eta isunak izan daitezke 901 eta 45.000 euro bitartekoak.

Bestalde, informazio horretan zehazten da, baimenik gabe ezin dela bertan akanpatu, eta ezta surik egin ere. **K**

Gaurtik etzira, makina bat partidu

HERNANI ESKU PELOTA

Azken egunotan bezala, esku pelota partiduak izango dira Hernaniko frontoian, gaurtik larunbatera ere; Zikuñaga Torneokoak batzuk, eta Hernaniko Txapelketakoak besteak. Gaur, arratsaldeko 17:30etan hasiko da jaialdia, lau partidurekin; eta tartean ariko dira Txintxurreta, Alberdi, Deskarga, Oiartzabal eta Insausti hernaniarrak, eta Elizegi goizuetarra. Bihar ere, 17:30etan hasiko da jaialdia; eta larunbatean, zita bikoitza izango da, 10:30etan eta 16:00etan.

Gaur ere aukera, artelanetarako

ASTIGARRAGA KULTUR ETXE BERRIA

Erribera kultur etxe berria inauguratzen denean, erakusketak jarri nahi dute bertan, Astigarragako haurrek konfinamendutik gaur arte egindako artelanekin. Eta horiek entregatzeko, gaur jarri dute beste hitzordu bat: Erribera kultur etxean bertan (Kontxa Etxeberria plaza) egongo dira lanak jasotzen, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara.

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Kanpoko igerilekuetarako abonoa

Ez naiz asko luzatuko. Hitz egoki batzuk aurkitzeraino bakarrik. Lotsagarria? Iraingarria? Tamalgarria?

Nola da posible herriko seme-alaba garenok kanpo igerilekuetarako abonoa ezin

ateratzea, kiroldegiko bazkide ez bagara? Alegia, adibidez Madriletik datorren edozein pertsonak duen eskubide berdina degu?

Oso gaizki ari zarete, eta oso haserre gaizkuzue!

Iñaki Ojeda Odria


Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzeko duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

XIMON ETXEBERRIA BELAUNZARAN

Txotx ondorengo solasaldiak faltan botako dizkiagu, Ximon!

HIRE ESKOLAKO LAGUNAK




Hernanin, 2020ko uztailaren 2an

SIMON ETXEBERRIA BELAUNZARAN

Joan zinen gu hemen utzita, baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.

GURE OLENTZERO.

SAN JOAN KONPARTSA



Hernanin, 2020ko uztailaren 2an

XIMON ETXEBERRIA BELAUNZARAN

- Goian bego -

Zer ederra izan den zurekin lan egitea. Ze tristea zurekin ez egotea.

SAGARDOTEGIKO LANKIDEAK




Hernanin, 2020ko uztailaren 2an

XIMON ETXEBERRIA BELAUNZARAN

Zure alaitasuna beti izango dugu gogoan.

DORRONSORO OKINDEGIKO ZURE LAGUNAK



Hernanin, 2020ko uztailaren 2an



Bezeroak hartzeko ondo egokituta daukate jatetxea, Zinkoenean.

«Udari begira, berrikuntzekin gatoz»

HERNANI PUBLIERREPORTAJEA

Duela gutxi arte, egunero eskaini izan ditu eguneko menuak, Zinkoenea Tabernak, baina Covid-19ak eragindako egoera ikusita, hau aldatzea erabaki dute. Hori horrela, egungo egoerara moldatzeko, egunero karta eskaintzen hasi dira jadanik, «asteaz zehar zein asteburuetan ematen dugu karta aukera».

3 urte daramatzate jendea-ri kalitatezko jakiak ematen,

«gainera gure berezitasun nagusia arraina eta haragia dira, parrilan».

Udari begira, egunero irekita egongo da Zinkoenea Taberna, eta orain arte ez bezala, igande arratsaldean ere atek irekita izango ditu.

Gainera, udako eguraldiaz gozatzeko, asteazkenetan pintxopotea egin daiteke, arratsaldeko 19:00etan hasi eta 21:00ak arte. «Eguraldiaren arabera, terrazan jateko aukera ere ematen dugu».



IRAGARKI MERKEAK

Langile bat behar da URGENTEA-SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA, esperientziarekin, gidatzeko kameta eta prebentzioko kursoak baloratuko dira. **Interesatuak deitu 943 690 643**

Etebizitza alokairuan. Deitu 619 81 33 57

LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidalu c.v. rrrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

Neska euskalduna goizez edozer lan egiteko prest! Deitu: 637 30 28 52

Astigarragako sagardotegi batean lan egiteko zerbitzari bat behar da. Urte osoko lana.

Idatzi: landepartamendua@gmail.com

19 urteko neska umeak zaintzeko lan bila, esperientziarekin. **Deitu: 688 697 001**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**